



## ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

**Espediente zk./Nº expediente:** 2026IGOB0009

**Gaia/Asunto:** 2026ko ekainaren 02ko Tokiko Gobernu Batzarra/Junta de Gobierno Local de fecha 02 de junio de 2026

### **Tokiko Gobernu Batzarra 2026ko ekainaren 02an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.**

Errenteriako Udaletxean, 2026ko ekainaren 02ko 10:00ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU), ondoko zinegotziak elkartu dira:

#### **ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU**

- Leire Mazizior Egilegor
- Bernar Lemos Taberna
- Naroa Zabala Cia

#### **ELKARREKIN ERRETERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde**

- Yolanda Martín Marcos

Ez da etorri, baina ezinetorria azaldu du, Maite Gartzia Ontiveros (*ELKARREKIN ERRETERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde*).

Bertan dago, egintza fedatzeko, Ainhoa Esnaola Zubeldia Idazkari orokorra.

#### **1. 2026ko maiatzaren 19ko ohiko bilkurari dagokion akta irakurri eta, egoki bada, onartzea. (2026IGOB0008).**

Oharrik gabe onartu da.

#### **2. "Familia gunea eta ludoteka izango den lokala berritzeko Proiektuan zehaztutako obrak. OlibetAuzoa, 6" adjudikatzea (2026OLAN0003).**

### **Acta de la sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local celebrada el día 02 de junio de 2026.**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 10:00 horas del día 02 de junio de 2026, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU), las siguientes concejales y concejales:

#### **ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU**

- Leire Mazizior Egilegor
- Bernar Lemos Taberna
- Naroa Zabala Cia

#### **ELKARREKIN ERRETERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde**

- Yolanda Martín Marcos

No asiste, excusando su ausencia, Maite Gartzia Ontiveros (*ELKARREKIN ERRETERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde*).

Asiste y da fe del Acto Secretaria general Ainhoa Esnaola Zubeldia.

#### **1. Lectura y aprobación en su caso del acta correspondiente a la sesión ordinaria del 19 de mayo de 2026 (2026IGOB0008).**

Se aprueba sin observación alguna.

#### **2. Adjudicación de las "Obras definidas en el Proyecto de reforma de local para la zona familiar y ludoteca. Barrio de Olibet, 6" (2026OLAN0003).**



## ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

2026ko martxoaren 30eko Alkatezaren Ebazpenaren bidez, espedientea ireki zen "Familia gunea eta ludoteka izango den lokala berritzeko Proiektuan zehaztutako obrak. Olibet auzoa 6" kontratatzeko, prozedura Irekiaren bidez eta ohiko izapidea.

Baliozko epean, bost (5) proposamen aurkeztu ziren: "ELECENOR SERVICIOS Y PROYECTOS, S.A."; "4 BADA MANTENTZE ZERBITZUAK, S.L.U."; "CONSTRUCCIONES BENTA BERRI ERAIKUNTZAK, S.L."; "ERRETI ERAIKUNTZAK, S.L." eta "CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI, S.A.".

Kontratazio Mahaiak 2026ko apirilaren 30ean hartutako erabakia ikusita, kontratuaren esleipendun gisa "CONSTRUCCIONES BENTA BERRI ERAIKUNTZAK, S.L." proposatu zuen, interes publikoentzako eskaintzarik onuragarriena izateagatik, 483.395 euroko prezioan (%21eko BEZa bame), lau (4) hilabeteko exekuzio epearekin eta hiru (3) urteko berme epearekin.

Proposatutako adjudikazio-hartzaileari eskatu zaio, hamar (10) laneguneko epean, hainbat dokumentazio aurkeztea, baita behin betiko bermea ezartzea ere; hain zuzen ere, 19.975 eurotako bermea.

Enpresa interesatuak eskaturiko dokumentazioa ekarri du, baita behin betiko bermea ere.

Udal Kontuhartzaileak fiskalizazio txostena egin du.

### ZUZENBIDE OINARRIAK

- Sektorre Publikoko Kontratuen Legea (9/2017 Legea, azaroaren 8koa)

2026ko maiatzaren 14an Ondare eta Kontratazioko Delegatuak egindako erabaki-

Visto que por Resolución de Alcaldía de fecha 30 de marzo de 2026 se incoó expediente para la contratación de las "Obras definidas en el Proyecto de reforma de local para la zona familiar y ludoteca. Barrio Olibet, 6", mediante procedimiento Abierto y tramitación ordinaria.

Visto que en plazo hábil se presentaron cinco (5) proposiciones correspondientes a "ELECENOR SERVICIOS Y PROYECTOS, S.A."; "4 BADA MANTENTZE ZERBITZUAK, S.L.U."; "CONSTRUCCIONES BENTA BERRI ERAIKUNTZAK, S.L."; "ERRETI ERAIKUNTZAK, S.L." y "CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI, S.A.".

Visto el acuerdo de la Mesa de Contratación de fecha 30 de abril de 2026 proponiendo como empresa adjudicataria del contrato a "CONSTRUCCIONES BENTA BERRI ERAIKUNTZAK, S.L.", al ser la más ventajosa para los intereses públicos, por un precio de 483.395 euros (21% IVA incluido), un plazo de ejecución de cuatro (4) meses y un plazo de garantía de tres (3) años.

Visto que se ha requerido a la empresa adjudicataria propuesta, para que en el plazo de diez (10) días hábiles aportara diversa documentación así como que depositara una garantía definitiva por importe de 19.975 euros.

Visto que la empresa interesada ha aportado la documentación requerida y la garantía definitiva.

Visto el informe de fiscalización de la Interventora Municipal.

### FUNDAMENTOS DE DERECHO

- Ley de Contratos del Sector Público (Ley 9/2017 de 8 de noviembre)

Vista la propuesta de acuerdo del Delegado de Contratación y Patrimonio de fecha 14 de mayo de



## ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

proposamena, eta Hirigintzako Aholkulari Juridikoak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau,

### ERABAKI DU

1.- Joseba Andoni Yarzabal Retegi jaunari ESLEITZEA, "CONSTRUCCIONES BENTA BERRI ERAIKUNTZAK, S.L." enpresaren ordezkari gisa. (IFK: B-06776678) "Familia gunea eta ludoteka izango den lokala berritzeko Proiektuan zehaztutako obrak. Olibet auzoa 6" izeneko kontratua, 483.395 euroko prezioan (%21eko BEZa barne), lau (4) hilabeteko exekuzio epearekin eta hiru (3) urteko berme epearekin, lizitazioa arautu duten Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Orrien arabera, bai eta espedientean ageri den esleipendunaren eskaintzaren arabera ere.

Ondorio horietarako indarrean dagoen Eraikuntza eta Herrilan arloko Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboa, aplikatuko da.

2.- IZENDATZEA kontratuaren Arduradun, María Furundarena, Udal Arkitekto teknikoa.

3.- Era berean, ESKATZEA adjudikazio-hartzaileari 15 laneguneko epean, adjudikazioaren jakinarazpena egin denetik kontaktzen hasita, kontratua elektronikoki sinatu dezan administrazio dokumentuan.

4.- ARGITARATZEA kontratuaren adjudikazioa Errenteriako Udalaren Kontratatzaillearen Profilean, iragarki baten bidez.

5.- XEDATZEA 483.395 eurotako gastua (%21 BEZ barne) A-964-2026 zorpekoaren kontura.

2026 y la conformidad dada por el Asesor Jurídico de Urbanismo a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldesa de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

### ACUERDA

1º.- ADJUDICAR a D. Joseba Andoni Yarzabal Retegi, en representación de "CONSTRUCCIONES BENTA BERRI ERAIKUNTZAK, S.L." (CIF: B-06776678) el contrato para la ejecución de las "Obras definidas en el Proyecto de reforma de local para la zona familiar y ludoteca. Barrio Olibet, 6", por un precio de 483.395 euros (21% IVA incluido), un plazo de ejecución de cuatro (4) meses y un plazo de garantía de tres (3) años, de conformidad con los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Prescripciones Técnicas que han regido la licitación, así como a la oferta del adjudicatario que consta en el expediente.

A estos efectos, será de aplicación el Convenio Colectivo de la Construcción y Obras Públicas de Gipuzkoa.

2º.- DESIGNAR a la Arquitecta técnica Municipal, María Furundarena, Responsable del contrato.

3º.- REQUERIR asimismo a la empresa adjudicataria para que en el plazo de 15 días hábiles a contar desde el siguiente a la notificación de la adjudicación, formalice electrónicamente el contrato en documento administrativo.

4º.- PUBLICAR la adjudicación del contrato mediante anuncio en el perfil del contratante del Ayuntamiento de Errenteria.

5º.- DISPONER el gasto de 483.395 euros (21% IVA incluido) con cargo al contraído: A-964-2026.



## ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

### 3. Udal Araudi Planaren 4. aldaketa (2026ZBAR0008)

#### AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzordeak 2023ko urriaren 17ko akordio bidez Errenteriako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren, Errenteria Musikal, Araudi Plana 2024-2027 onartu zuen, non bertan txertatzen den Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak arloetako arau ekimenen aurreikuspena.

Bere planifikazio tresna izaera dela-eta, aipatutako akordioak berak dagokion malgutasuna onetsi zion planari indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen beharrei aurre egiteko eta Tokiko Gobernu Batzordeko akordio bidez egoki jotzen diren aldaketak txertatu ahal izateko. Hori guztia, ordenamendu juridikoaren errealitateari egokitzea ahalbidetzeko, hala nola testuinguru sozioekonomikoari, izan ere, hasiera batean jaso ezin izan diren beste arau batzuk edo hauen aldaketak Araudi Planean txertatzea eska dezake.

Oraingo honetan, Udal Araudi Planaren hiru aldaketa proposamen jaso dira Udaleko hiru departamentutatik, eta zehazki, hurrengoetatik: Udaltzaingoa, Informazioaren Gizartea eta Ogasuna.

#### Aldaketa proposamenak

**- Udaltzaingoko departamentuak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeo erregelamendua aldatzeko proposamena egin du**

**Aldaketa honen helburua, zehazki, hurrengoa da: Erregelamenduaren hasierako argitalpenetik gehituz joan diren operadoreak eguneratzea**

**Aldaketa hori, departamentuak berak**

### 3. 4<sup>a</sup> modificación del Plan Normativo (2026ZBAR0008)

#### ANTECEDENTES

Mediante acuerdo de Junta de Gobierno Local de fecha 17 de octubre de 2023 se aprobó el Plan Normativo 2024-2027 del Ayuntamiento de Errenteria y de su organismo autónomo Errenteria Musikal que incluye la previsión de las iniciativas normativas de los ámbitos de Organización, Territorio y Ciudadanía.

Dada su naturaleza de instrumento de planificación, el citado acuerdo reconocía la flexibilidad que el mismo ha de tener para que puedan incluirse mediante acuerdo de la Junta de Gobierno Local las modificaciones que resulten oportunas derivadas de las necesidades que pudieran producirse durante su vigencia. Todo ello al objeto de facilitar su adaptación a la realidad del ordenamiento jurídico, y al contexto socioeconómico, que pueden requerir de la incorporación al Plan Normativo de nuevos proyectos normativos o modificaciones de los vigentes que no hubieran podido recogerse inicialmente.

En esta ocasión, se han recabado tres propuestas de modificación del Plan Normativo por los siguientes departamentos municipales: Policía Local, Sociedad de la Información y Hacienda.

#### Propuestas de modificación:

**- El departamento de Policía Local pretende modificar el Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de viajeros por carretera en el ámbito de las administraciones guipuzcoanas integradas en ala Autoridad Territorial de Transporte de Gipuzkoa**

**El objetivo de esta modificación es la siguiente: Actualizar los operadores que se han ido incorporando desde la publicación inicial del Reglamento.**

**El mencionado departamento prevé realizar esta**



## ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

proposatuta, 2026. urteko ekainan egitea aurreikusten da.

- Informazioaren Gizarteko departamentuak Errenteriako Udalaren administrazio elektronikoa arautzen duen udal Ordenantza aldatzea proposatzen du

Aldaketa honen helburua hurrengoa da: Errenteriako Udalean iragarki-tala elektronikoen inplementazioarekin eman diren aurrera pausuengatik, sinplifikazioari begira arautzea beharrezkoa diren zenbait elementu txertatze aldera... beharrezkoa da ordenantza hau gaur egungo behar horietara egokitzeko aldatzea.

Aldaketa hori, departamentuak berak proposatuta, 2026. urteko irailean egitea aurreikusten da.

- Ogasuna departamentuak hurrengo Ordenantza berria onartzeko proposamena egin du: kirol instalazioen zerbitzuak erabiltzeagatik jaso beharreko izaera publiko ez-tributariora duen ondare-prestazioa arautzekoa.

Udal ordenantza berri honen helburua da udal kirol instalazioen tarifetan progresibitatea txertatzea.

Ez da zehaztu onartze data zehatza.

Beraz, beharrezkoa da Araudi Plana aldatzea aldaketa hauek txertatze aldera.

Idazkaritza departamentuak izapidetzen du 2024-2027 Araudi Planaren espedientea eta horren aldaketak.

### LEGEDI APLIKAGARRIA

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 132.

modificación en junio de 2026.

- El departamento de la Sociedad de la Información pretende modificar la Ordenanza municipal reguladora de la administración electrónica del Ayuntamiento.

El objetivo de la modificación es la siguiente: debido a los avances que se han dado con la implementación del tablón electrónico de anuncios en el Ayuntamiento de Errenteria, con el objetivo de incorporar algunos elementos necesarios de cara a la simplificación... es necesario modificar esta ordenanza para adaptarla a las necesidades actuales.

El mencionado departamento prevé realizar esta modificación en septiembre de 2026.

- El departamento de Hacienda ha propuesto aprobar una nueva Ordenanza reguladora de la prestación patrimonial de carácter no tributario a percibir por la utilización del servicio de instalaciones deportivas.

El objetivo de la presente Ordenanza será incorporar la progresividad en las tarifas de las instalaciones deportivas municipales.

No se ha concretado la fecha concreta de su aprobación.

Por tanto, resulta necesario modificar el Plan Normativo a efectos de incluir estas modificaciones.

El departamento de Secretaría General tramita el expediente relativo al Plan Normativo 2024-2027 y sus modificaciones.

### LEGISLACIÓN APLICABLE

- Artículo 132 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las



## ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

artikuluaren ezartzen da Administrazio Publikoek beharturik daudela urtero Araudi Plana onartzera. Bertan jasoko dira aurkeztuko diren legezko edo arazko ekimenak hurrengo urtean onartuak izan daitezkeen. Behin onaturik, Urteko Araudi Plana egokitzen zaion Administrazio Publikoaren Gardentasunaren Atarian argitaratuko da

- Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Udalaren eskumenei dagokienez, udal erregelamenduak eta ordenantzak arautzeko ahalmena eta prozedura tramitatzeko (ohiko eskema mantentzen du, beharrezkoa dena txertatzea prozedura alorreko berrikuntzekin, urriaren 1eko 39/2015 Legea barne hartuta).

- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden Xedapenen Testu Bategina onartzen duena; hau ere aurreko legerari lotuta

- Euskadiko toki-erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea

- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea

- Sektore-legeri espezifikoak Araudi Planean aurreikusitako udal erregelamendu eta ordenantza zehatzen planifikazioari aplikatu dakizkiokeenak

- 2023ko ekainaren 19ko alkatetzako dekretua alkatearen hainbat eskuduntza tokiko gobernu batzordearengan eskuordetzen dituenak

Alkateak egindako erabaki-proposamena, eta Idazkari Nagusiak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau

Administraciones Públicas, contiene la obligación de las Administraciones Públicas, de aprobar anualmente un Plan Normativo que contendrá las iniciativas legales o reglamentarias que vayan a ser elevadas para su aprobación en el año siguiente. Una vez aprobado, el Plan Anual Normativo se publicará en el Portal de la Transparencia de la Administración Pública correspondiente

- Ley 7/1985 de 2 de abril que regula las Bases del Régimen Local, en cuanto al ámbito competencial municipal, potestad reglamentaria y procedimiento de tramitación de reglamentos y ordenanzas municipales (mantiene el esquema tradicional que resulta necesario integrar con las novedades en materia de procedimiento que incluye la Ley 39/2015 de 1 de octubre)

- Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Vigentes en materia de Régimen Local, en relación también con la ley anterior

- Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi

- Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno

- Legislación sectorial específica aplicable a la planificación de los reglamentos y ordenanzas municipales concretas previstos en el Plan Normativo

- Decreto de alcaldía de fecha 19 de junio de 2023 de delegación de competencias de la Alcaldesa en la Junta de Gobierno Local

Vista la propuesta de acuerdo de la Alcaldesa y la conformidad dada por la Secretaria General a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

En ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por



## ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

unanimidad,

### ERABAKI DU

**Lehenengoa.-** Errenteriako Udalaren Araudi Plana 2024-2027 4. aldaketa onartzea eranskinean jasotakoaren baitan. Ondorengoa da aldaketaren xedea:

Aldaketa proposamenak:

**- Udaltzaingoko departamentuak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeo erregelamendua aldatzeko proposamena egin du**

Aldaketa honen helburua, zehazki, hurrengoa da: Erregelamenduaren hasierako argitalpenetik gehituz joan diren operadoreak eguneratzea

Aldaketa hori, departamentuak berak proposatuta, 2026. urteko ekainan egitea aurreikusten da.

**- Informazioaren Gizarteko departamentuak Errenteriako Udalaren administrazio elektronikoa arautzen duen udal Ordenantza aldatzea proposatzen du**

Aldaketa honen helburua hurrengoa da: Errenteriako Udalean iragarki-tala eletronikoaren inplementazioarekin eman diren aurrera pausuengatik, sinplifikazioari begira arautzea beharrezkoa diren zenbait elementu txertatze aldera... beharrezkoa da ordenantza hau gaur egungo behar horietara egokitzeako aldatzea.

Aldaketa hori, departamentuak berak proposatuta, 2026. urteko irailean egitea aurreikusten da.

### ACUERDA

**Primero.-** Aprobar la 4ª modificación del Plan Normativo 2024-2027 del Ayuntamiento de Errenteria de acuerdo con lo previsto en el anexo y que consiste en lo siguiente:

Propuestas de modificación:

**- El departamento de Policía Local pretende modificar el Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de viajeros por carretera en el ámbito de las administraciones guipuzcoanas integradas en ala Autoridad Territorial de Transporte de Gipuzkoa**

El objetivo de esta modificación es la siguiente: Actualizar los operadores que se han ido incorporando desde la publicación inicial del Reglamento.

El mencionado departamento prevé realizar esta modificación en junio de 2026.

**- El departamento de la Sociedad de la Información pretende modificar la Ordenanza municipal reguladora de la administración electrónica del Ayuntamiento.**

El objetivo de la modificación es la siguiente: debido a los avances que se han dado con la implementación del tablón electrónico de anuncios en el Ayuntamiento de Errenteria, con el objetivo de incorporar algunos elementos necesarios de cara a la simplificación... es necesario modificar est aordenanzada para adaptarla a las necesidades actuales.

El mencionado departamento prevé realizar esta modificación en septiembre de 2026.



## ERRENTERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

**- Ogasuna departamentuak hurrengo Ordenantza berria onartzeko proposamena egin du: kirol instalazioen zerbitzuak erabiltzeagatik jaso beharreko izaera publiko ez-tributariora duen ondare-prestazioa arautzekoa.**

Udal ordenantza berri honen helburua da udal kirol instalazioen tarifetan progresibitatea txertatzea.

Ez da zehaztu onartze data zehatza.

**Bigarrena.-** Betetzea Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta Euskadiko toki-erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean publizitate aktiboaren inguruan xedatutakoak, Araudi-plana Udalaren web-orrian argitaratuta.

**Hirugarrena.-** Erabaki honen eta onartutako dokumentuaren berri ematea Udaleko sail eta departamentuei; Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak arloei; Koordinazio Gune Orokorrari eta, bereziki, arduradun politiko eta teknikoei, jakinarenean gainean egon daitezen eta bete ditzaten.

**Laugarrena.-** Erabaki honen eta onartutako dokumentuaren berri ematea gainerako udalkideei.

**- El departamento de Hacienda ha propuesto aprobar una nueva Ordenanza reguladora de la prestación patrimonial de carácter no tributario a percibir por la utilización del servicio de instalaciones deportivas.**

El objetivo de la presente Ordenanza será incorporar la progresividad en las tarifas de las instalaciones deportivas municipales.

No se ha concretado la fecha concreta de su aprobación.

**Segundo.-** Dar cumplimiento a lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno y en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi en lo que se refiere a la publicidad activa publicando el Plan Normativo en la página web municipal.

**Tercero.-** Poner en conocimiento de las áreas y departamentos municipales, de los ámbitos de Organización, Territorio y Ciudadanía, del Grupo de Coordinación General (KGO) y especialmente de las y los responsables políticos y técnicos el presente acuerdo y el documento aprobado para su conocimiento y cumplimiento.

**Cuarto.-** Poner en conocimiento del resto de corporativos/as el presente acuerdo y el documento aprobado.

### ERANSKINA/ANEXO

## Araudi Plana 2024-2027

**Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak arloak eta  
Errenteria Musikal udal erakunde autonomoa**



**ERRETERIA  
UDALA**

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

# Plan Normativo 2024 – 2027

## Ámbitos de Organización, Territorio y Ciudadanía y el organismo autónomo municipal Errenteria Musikal

### ARAUDI PLANA 2024-2027 AURREIKUSPENA PLAN NORMATIVO 2024-2027 PREVISIÓN

DEPARTAMENTUA DEPARTAMENTO	UDALTZAINGOA POLICÍA LOCAL
<b>Ordenantza / Erregelamendua</b> Ordenanza / Reglamento	<b>Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamendua /</b> Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de viajeros por carretera en el ámbito de las administraciones guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa
<b>Berria edo dagoenaren aldaketa</b> Nueva o modificación de la existente	<b>Aldaketa</b> Modificación
<b>Helburua</b> Objetivo	<b>Erregelamenduaren hasierako argitalpenetik gehituz joan diren operadoreak eguneratzea /</b> Actualizar los operadores que se han ido incorporando desde la publicación inicial del Reglamento.
<b>Haserako onarpenaren aurreikuspena</b> Previsión de aprobación inicial	<b>2026ko ekaina</b>



**ERRETERIA  
UDALA**

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

**ARAUDI PLANA 2024-2027 AURREIKUSPENA  
PLAN NORMATIVO 2024-2027 PREVISIÓN**

DEPARTAMENTUA DEPARTAMENTO	Informazioaren Gizartea
<b>Ordenantza / Erregelamendua</b> Ordenanza / Reglamento	<b>Errenteriako Udalaren administrazio elektronikoa arautzen duen udal Ordenantza.</b>  Ordenanza municipal reguladora de la administración electrónica del Ayuntamiento de Errenteria.
<b>Berria edo dagoenaren aldaketa</b> Nueva o modificación de la existente	<b>Aldaketa</b>  Modificación
<b>Helburua</b> Objetivo	<b>Errenteriako Udalean iragarki taula elektronikoaren inplementazioarekin eman diren aurrera pausuengatik, sinplifikazioari begira arautzea beharrezkoa diren zenbait elementu txertatze aldera... beharrezkoa da ordenantza hau gaur egungo behar horietara egokitzeko aldatzea.</b>  Debido a los avances que se han dado con la implementación del tablón electrónico de anuncios en el Ayuntamiento de Errenteria, con el objetivo de incorporar algunos elementos necesarios de cara a la simplificación... es necesario modificar esta ordenanza para adaptarla a las necesidades actuales.
<b>Haserako onarpenaren aurreikuspena</b> Previsión de aprobación inicial	<b>Iraila</b>  Septiembre

**ARAUDI PLANA 2024-2027 AURREIKUSPENA  
PLAN NORMATIVO 2024-2027 PREVISIÓN**

DEPARTAMENTUA DEPARTAMENTO	OGASUNA HACIENDA
<b>Ordenantza / Erregelamendua</b> Ordenanza / Reglamento	<b>Udal Ordenantza, kirol instalazioen zerbitzuak erabiltzeagatik jaso beharreko izaera publiko ez-tributariora duen ondare-prestazioa</b>  Ordenanza municipal reguladora de la prestación patrimonial de carácter no tributario a percibir por la utilización del servicio de instalaciones deportivas.
<b>Berria edo dagoenaren</b>	<b>Berria (2026ZUAO0001)</b>



**ERRETERIA  
UDALA**

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

<b>aldaketa</b> Nueva o modificación de la existente	Nueva (2026ZUAO0001)
<b>Helburua</b> Objetivo	Udal kirol instalazioen tarifertan progresibitatea txertatzea Incorporar la progresividad en las tarifas de las instalaciones deportivas municipales
<b>Haserako onarpenaren aurreikuspena</b> Previsión de aprobación inicial	<b>Erabakitzeko</b> Por decidir

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 10:15ak zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Y sin más asuntos de los que tratar, la presidenta levanta la sesión, siendo las 10:15 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta. La secretaria general.

Errenteria, 2026ko ekainaren 02a

Errenteria, 02 de junio de 2026

Idazkari orokorra / Secretaria general

Ainhoa Esnaola Zubeldia



EKS | CSV: ESKU70075ca5-8331-4069-9bc8-3d098dc008af

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06710>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2026IGOB0009-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA)